# LEGEGINTZA
# FUNCIÓN LEGISLATIVA

## LEGE PROPOSAMENAK
## PROPOSICIONES DE LEY

***Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legea aldatzekoa*** (Osoko Bilkuraren erabakia)
(10/09.02.03.0001)

Eusko Legebiltzarrak, 2013ko otsailaren 7an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Arabako Biltzar Nagusiek egindako lege-proposamena.

Legebiltzarrean indarrean dagoen Erregelamenduko 149.2 artikuluan adierazitakoa betez, Mahaiak, 2013ko otsailaren 19ko bileran, agindu du aipatutako lege-proposamenaren testua Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitara dadila eta Ingurumenaren eta Lurralde Politikaren Batzordeari bidal dakiola. Mahaiak, halaber, hamabost egun baliodunеko epea ireki du zuzenketak aurkezteko.

**Eusko Legebiltzarreko lehendakaria**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

Eusko Legebiltzarrak, 2013ko otsailaren 7an egindako osoko bilkuran, aztergai izan du lege-proposamen bat, Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legea aldatzekoa, eta, eztabaida egin ondoren, aintzat hartzea onetsi du. Honen eranskinean doa proposamen horren testua.

Eta horrela jasota geratzeko, eta erabakitakoa bete dadin, ziurtagiri hau egiten da Eusko Legebiltzarreko lehendakariaren oniritziarekin, Gasteizen, 2013ko otsailaren 7an.

**Mahaiko lehen idazkaria, Antonio Damborenea Basterrechea. Ontzat emana, Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, Bakartxo Tejeria Otermin**

ZIURTAGIRIAREN ERANSKINA

**LEGE PROPOSAMENA, EUSKAL HERRIKO NATURA BABESTEKO EKAINAREN 30EKO 16/1994 LEGEA ALDATZEKOA**

**ZIOEN AZALPENA**

Gaur egun, askotan erabiltzen den garapen iraunkorraren kontzeptua dela-eta, derrigorrezkoa da ingurumenaren alderdia kontuan izatea beste politika mota batzuk finkatzeko orduan.

Hori dela-eta, naturaren ondarearen erabileraren ikuspuntutik, printzipio iradokitzaileak ondoko alderdietan oinarrituko dira: naturaren babesak lehenta-

***De modificación de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco*** (Acuerdo del Pleno)
(10/09.02.03.0001)

El Parlamento Vasco, en la sesión plenaria celebrada el día 7 de febrero de 2013, adoptó el acuerdo de tomar en consideración de la proposición de ley formulada por las Juntas Generales de Álava.

En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 149.2 del vigente Reglamento de la Cámara, la Mesa, en su reunión del día 19 de febrero de 2013, ordena la publicación del texto de la proposición de ley en el Boletín Oficial del Parlamento Vasco así como su remisión a la Comisión de Medio Ambiente y Política Territorial, y se abre un plazo de quince días hábiles para la presentación de enmiendas.

**La presidenta del Parlamento Vasco**
**Bakartxo Tejeria Otermin**

El Pleno del Parlamento Vasco, en la sesión celebrada el día 7 de febrero de 2013, tras el debate de la proposición de ley de modificación de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, ha aprobado la toma en consideración de la citada proposición, cuyo texto se transcribe en el anexo adjunto.

Y para que así conste, y en orden a su ejecución, se expide la presente certificación con el visto bueno de la presidenta del Parlamento Vasco, en Vitoria-Gasteiz, a 7 de febrero de 2013.

**El secretario primero de la Mesa, Antonio Damborenea Basterrechea. Visto bueno, la presidenta del Parlamento Vasco, Bakartxo Tejeria Otermin**

ANEXO A LA CERTIFICACIÓN

**PROPOSICIÓN DE LEY DE MODIFICACIÓN DE LA LEY 16/1994, DE 30 DE JUNIO, DE CONSERVACIÓN DE LA NATURALEZA DEL PAÍS VASCO**

**EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

En la actualidad, el tan manido concepto de desarrollo sostenible viene a establecer la obligatoriedad de tomar en consideración la variable medioambiental a la hora de establecer otra serie de políticas.

De esta manera, desde la perspectiva de la utilización del patrimonio natural, los principios inspiradores se centran en la prevalencia de la protección

suna izango du lurralde eta hirigintza antolaketaren gainean, eremu naturaletan edo eta baso espezietan eragina izan ditzaketen esku-hartzeetan arretaren printzipioa sartuko da, eremu natural babestuekin lotutako garapenaren iraunkortasuna hobetzeko prozesuak sustatzen lagunduko da, natura ondarearen aprobetxamendu iraunkorra bermatzeko moduko baliabideen erabilera ordenatua sustatuko da eta politika sektorialetan natura ondarearen eta biodibertsitatea zaintzeko, modu iraunkorrean erabiltzeko, hobetzeko eta lehengoratzeko eskakizunak sartuko dira.

Jarraibide horiek Estatuko antolamendu juridikoan sartu dira Natur Ondareari eta Biodibertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legearen bidez, baina ohiko praktikan inkongruentzia handiak topatzen dituzte EAEn lurralde antolaketa egiteko orduan.

Orain dela gutxi ezagutu izan da Eusko Jaurlaritzak, Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi, S.A. (SHESA) elkartearen bidez Araban egon daitekeen ez-ohiko gas meategi bat aztertu eta ustiatu nahi duela (behar diren baldintzak betez gero) haustura hidraulikoaren edo fracking izeneko teknikaren bidez. Gainera, proiektuaren sustatzaileek askotan jakinarazi dute zulatu beharreko lehen putzua Subilla Gasteizen dagoela. Eremu hori, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren Aginduak, 2010eko otsailaren 12koak, behin-behingoz Gasteizko Menditzat jo duen eremuaren barruan dago. Hori dela-eta, Gasteizko Mendien arloko Natur Baliabideak Antolatzeko Plana egin eta onesteko prozesuari ekin diote; Parke Naturaltzat jo aurretik egin beharreko urratsa da.

Zientzia-azterketa askok teknika horiek erabiltzea ingurumenerako zein pertsonen osasunerako oso arriskutsua dela diote. Gainera, zenbait herrialdek teknika horren erabilera debekatu dute eta horiek garatzeko atzerapenak agindu dituzte beste batzuek.

Aurretik azaldutako guztia dela-eta, agian gure lurraldean fracking teknika lehendabiziko aldiz erabiliko dute lehen aipatutako 2010eko otsailaren 12ko Aginduak ondoko modu honetan hartutako eremu batean: "Araban dugun ingurumen bitxitasun eta interes handienetako eremu bat da, natura gaitasun handia du eta ondo zainduta dago".

Hain erasotzaile den eta pertsonen osasunean eta ingurumenean ondorio txarrak izango dituen teknika horren erabilera eta natura zaintzea guztiz bateraezinak direla jo dute. Natura zaintzea da, hain zuzen, 16/1994 Legearen helburu nagusia eta, beraz, teknika hori ezin da erabili Legeak Babestutako Natura Guneen Saretzat hartutako eremuetan.

ambiental sobre la ordenación territorial y urbanística, en la incorporación del principio de precaución en las intervenciones que puedan afectar a espacios naturales y/o especies silvestres, en contribuir a impulsar procesos de mejora en la sostenibilidad del desarrollo asociados a espacios naturales protegidos, en la promoción de la utilización ordenada de los recursos para garantizar el aprovechamiento sostenible del patrimonio natural y en la integración de los requerimientos de la conservación, uso sostenible, mejora y restauración del patrimonio natural y la biodiversidad en las políticas sectoriales.

Estas directrices, que han sido incorporadas al ordenamiento jurídico estatal por medio de la Ley 42/2007, de 13 de diciembre, del Patrimonio Natural y de la Biodiversidad, siguen encontrando grandes incongruencias en la práctica habitual a la hora de realizar la planificación territorial en la CAPV.

Recientemente se ha dado a conocer la intención del Gobierno Vasco, a través de la Sociedad de Hidrocarburos de Euskadi S.A. (SHESA) de explorar y explotar (si se reúnen las condiciones adecuadas) un supuesto yacimiento de gas no convencional en Álava mediante la técnica de la fractura hidráulica o fracking. Además, han sido multitud las ocasiones en que los promotores del proyecto han informado de que el primero de los pozos a perforar se ubicaría en las cercanías de Subijana de Álava, en un emplazamiento que se encuentra dentro del área delimitada provisionalmente como Montes de Vitoria mediante la Orden de 12 de febrero de 2010, de la Consejera de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca, por la que se inicia el procedimiento de elaboración y aprobación del Plan de Ordenación de los Recursos Naturales del área de los Montes de Vitoria, paso previo a su declaración como Parque Natural.

Existen numerosos estudios científicos documentados que alertan de los riesgos que la utilización de dicha técnica supone para el medio ambiente y la salud de las personas. Además, son varios los países que han prohibido la utilización de dicha técnica y los que han decretado moratorias sobre su desarrollo.

Todo lo anteriormente expuesto lleva a considerar que pudiera darse la situación en la que la utilización de la técnica del fracking sea desarrollada por primera vez en nuestro territorio en un área que la Orden de 12 de febrero de 2010 anteriormente aludida considera: "una de las zonas de mayor singularidad e interés ambiental de Álava y presenta un gran potencial natural con buen estado de conservación".

Se considera absolutamente incompatible la utilización de una técnica tan agresiva y con efectos adversos para la salud de las personas y del medio ambiente con la conservación de la naturaleza, objetivo fundamental de la Ley 16/1994 y por lo tanto su utilización en los espacios que esta ley establece como Red de Espacios Naturales Protegidos.

Ezin dugu ahaztu, gainera, Araban gaur egun badirela hidrokarburoen gainean ikertzeko bederatzi baimen eta beste hiru eskatu dituztela; horiek guztiek lurraldearen % 90 hartzen dute eta Arabako Babestutako Natura Guneen Sare ia osoan (Parke Naturalak, Biotopo Babestuak, Zuhaitz Apartekoak, Europar Batasunaren Intereseko Lekuak, Kontserbazio Eremu Bereziak eta Hegaztientzako Babes Bereziko Eremuak) izango dute eragina. Ikertzeko baimen horiei esker, ingurumen balioengatik babestutako toki guztietan fracking teknika erabiltzeko aukera izan dezakete eta toki horiek guztiak arriskuan jarriko dituzte.

Azaldutako adibideengatik oso zaila da sinestea lehen aipatutako jarraibideak –paisaien edertasunagatik, ekosistemen adierazgarritasunagatik edo landaretzaren, faunaren edo aniztasun geologikoaren bitxitasunagatik (osaketa geomorfologiakoak barne) natur eremuak babesteko orduan ordenamendu juridikoan nagusitu beharko direnak, badituztelako lehentasunez zaindu beharreko ekologia, estetika, hezkuntza eta zientzia balio handiak (parke naturalaren definizio juridikoa)–, bateragarriak direnik legeak natur eremuen mugen barruan ingurumenean inpaktu handia izango dituzten baliabideak ateratzeko ustiaketak baimentzearekin. Ekoizpen prozesuarekin lotutako eraginak aintzat hartu behar dira, adibidez, ur kontsumoa oso handia izango dela, inguruneko akuiferoak eta ibaiak kutsatuko dituztela, zehaztugabeko ur kutsatu kopuru jakin bat geldituko dela lur azpian, lurrikarak sor daitezkeela, atmosfera kutsatuko dela, negutegi efektuko gas kopuru handiak isuriko direla, smog sortuko dela, zarata sortuko dela, ibilgailu astunen trafikoa handia izango dela eta paisaiarekiko eragina handia izango dela.

Hori guztia dela-eta, Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 17.4 artikulua aldatzen da.

**Artikulu bakarra**

Euskal Herriko Natura Babesteko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen 17. artikuluaren 4. atala aldatuko da:

"17.4. Natura gune babestuen mugetan eta horien eragin eremuetan ezingo da meatzaritza ustiaketarik burutu, ez aire zabalean, ez lurpean. Halaber, debekatuta dago hidrokarburoak aztertzea edo ustiatzea haustura hidraulikoaren edo fracking izeneko teknikaren bidez".

***

No podemos olvidar, además, que actualmente existen en Álava nueve permisos para investigación de hidrocarburos concedidos y otros tres solicitados que abarcan aproximadamente un 90 % del territorio y que tienen incidencia en la práctica totalidad de la Red de Espacios Naturales Protegidos de Álava (Parques Naturales, Biotopos Protegidos, Árboles Singulares, Lugares de Interés Comunitario, Zonas de Especial Conservación y Zonas de Especial Protección para las Aves). La existencia de dichos permisos de investigación posibilita la utilización del fracking en todos estos lugares protegidos por sus valores ambientales y supone poner en riesgo el conjunto de los mismos.

Ejemplos como el expuesto hacen difícil creer que directrices como las al principio señaladas, que deben regir en el ordenamiento jurídico a la hora de proteger las áreas naturales que en razón de la belleza de sus paisajes, la representatividad de sus ecosistemas o la singularidad de su flora, de su fauna o de su diversidad geológica, incluidas sus formaciones geomorfológicas, poseen unos valores ecológicos, estéticos, educativos y científicos cuya conservación merece una atención preferente (definición jurídica de parque natural), sean compatibles con que la ley permita, dentro de los límites de las áreas naturales, explotaciones extractivas de recursos, con un alto impacto sobre el entorno. Se han de considerar afecciones ligadas al proceso productivo como son los elevadísimos consumos de agua, contaminación de acuíferos y de ríos del entorno, abandono bajo el subsuelo de cantidades indeterminadas de agua contaminada, terremotos, contaminación atmosférica, emisión de elevadas cantidades de gases de efecto invernadero, generación de smog, ruidos, gran tráfico de vehículos pesados, así como las afecciones al paisaje.

Por todo ello se modifica el articulo 17.4 de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco.

**Artículo único**

Se modifica el apartado 4 en el artículo 17 de la Ley 16/1994, de 30 de junio, de Conservación de la Naturaleza del País Vasco, con el siguiente tenor:

"17.4. Dentro de los límites y zonas de afección de los espacios naturales protegidos no podrá llevarse a cabo explotación minera alguna, ni a cielo abierto ni de forma subterránea. De igual manera, queda prohibida la exploración y explotación de hidrocarburos mediante la técnica de la fracturación hidráulica o fracking".

***